



zaraobe
institutua

71 URTE ESQUALDEAN
54 zenbakia 2023ko uztaila



TXINTXARRIEN BARRUAN, ZER OTE DAGO?

ERRELEBOA ZUZENDARITZAN RELEVO EN LA DIRECCIÓN



2023-24 urtean zuzendari berria izango du Zaraobek. Azken bost urtetan zehar zuzendaria izan den Roberto Marínek kargua utziko du eta Iñigo López de Santiagok hartuko du kargua, bere lau urteko proiektua onartua izan ondoren. Berarekin batera, Itziar Del valle, Imma Cirion, Isabel Zabaleta, Miren Viteri, Aitziber Larizgoitia, eta Aitor Agirre, zuzendaritza taldea osatuko dute.

AZKEN BOST URTEKO BALANTZEA.

2018tik hona gauza asko gertatu dira, nabarmenena, azken mendean ezagutu gabeko pandemia egoera bat. Argi denez, horrek sekulako kudeaketa zailtasunak ekarri zituen 2020an eta 21ean (online-klaseak, maskarillak, garbiketa, ikasleen arteko distantziak). Aldi berean, atzera bueltarik gabeko digitalizaziorako jauzia eragin du pandemiak, klaseen egunerokotasuna zeharo itxuraldatuz, ziur aski atzera bueltarik gabe..

Lanbide heziketan, bestalde, metodologia aldaketa garatu da urte hauetan, erronketan oinarritutako ETHAZI eredua era progresiboan ezarri delarik. DUAL formakuntza ere egonkortu da. Zuzendaritzaren beste apostu bat gizarteratze zikloaren ezarpena izan da. Ikasketa berri hau arrakasta handikoa izan da, eta eskaera handieneko zikloa bihurtu da dagoeneko.

Era berean, hazkundera izan da, urte hauetako beste ezaugarri nabarmen bat. 2018-19an 636 ikasle zeuden Zaraoben; datorren kurtsoan, ordea 830 bat ikasle aurreikusten dira, %30ko igoera alegia. Horrek poza ekartzen digu, Zaraobe inoiz baino indartsuago dagoelako seinalea baita. Alldi berean, sekulako erronka suposatzen du hurrengo zuzendaritzarentzat, bai eta ikas komunitatea osoarentzat ere.

Segi gaitzen aurrera
jarrai dezagun bidea
gure gazteriaren alde
zintzotasunez lanean.

En el curso 2023-24 Zaraobe tendrá una nueva dirección. Roberto Marín, que ha ejercido de director durante los últimos cinco años, dará el relevo a Iñigo López de Santiago, después de que haya sido valorado positivamente su proyecto para los cuatro próximos años.

Junto a Iñigo formarán el equipo directivo Itziar Del valle, Imma Cirion, Isabel Zabaleta, Miren Viteri, Aitziber Larizgoitia, y Aitor Agirre.

BALANCE DE LOS CINCO ÚLTIMOS AÑOS.

Desde 2018 han sucedido bastantes cosas, la más notable, una situación de pandemia como no se había conocido en al menos un siglo. Obviamente, esta circunstancia produjo una serie de dificultades de gestión; entre los años 2020 y 2021, las clases online, las mascarillas, la distancia social, las estrictas medidas de higiene... A la vez, ha dado pie a un salto digital que ha transformado las aulas y que no debería tener vuelta atrás.

En formación profesional se ha materializado el cambio de metodología, con la introducción progresiva del modelo ETHAZI basado en retos. También se ha asentado la formación DUAL. Otra apuesta de la dirección ha sido el ciclo de integración social, que ha supuesto un gran éxito, siendo ahora el ciclo con mayor demanda de todos.

El crecimiento ha sido, por otro lado, la otra característica del periodo. De los 636 alumnos/as que había en 2018-19 hemos pasado a los 830 que se prevén para el próximo año, es decir, un 30% más. Esto indica que Zaraobe está más fuerte que nunca, a la vez que supone un reto para la nueva dirección y para toda la comunidad educativa en general.

Iñigo López eta Roberto Marín

1. PROMOZIOA



Jada bi ikasturte pasatu dira... 2021eko irailaren 8an GIZARTERATZE zikloa martxan jarri zen, gelan 25 ikasle jakinmin itzelaz; ziklo berriaren zain, itxaropentsu, gogotsu... Proiektu berriari hasiera emateko beldurrekin, zalantzekin,... Ilusioz, grinaz,...

Tartean erronkak, lana, ikerketak, elkarrizketak, aldizkariak, ihes -gelak, lehen laguntzak... Barreak eta haserreak, pozak eta iruzurtzeak, energiadun momentuak eta nekea,...

Ikasturte hau bukatzeaz dago, eta zikloari hasiera eman zioten ikasleek GIZARTERATZEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIAK dira... ZARAOBE Institutuko lehenengo promozioa... Ez da azkena izango, zuen ondorengoek, zuek egindako bidea jarraituko dute... Jendearte elikatuz, gure ingurunea mimatuz... Sentsibilizatuz, gutxiengoaren errealitatea ezagutaraziz...

Pozgarria eta atsegingarria izan da bidea, proiektua... Irakasle taldea ziur dago giza material ikaragarria merkaturatzeko prest dagoela. Hemendik aurrera norberaren bizitza proiektua aurrean... ZORIONAK 1. promozioiko IKASLE TALDEARI!!!

**ZUEK POZIK BAZAUDETE,
GU ERE POZIK GAUDE!!**

AURKIBIDEA

ZARAOBE

Erreleboa zuzendaritzan	2
1.promozioa	3

GURE PROIEKTUAK

Txina.....	4
LHko ikasleak.....	5
Hedatze.....	6
Erasmus.....	7
Industria 4.0.....	8
Txintzarrien barruan.....	9
Agenda 2030.....	10
Lendoñobeitiko errota	10

JARDUERA OSAGARRIAK

Eureka zientzia museoa.....	11
2022ko Babio NON STOP.....	12
Miren Gorrotxategi.....	13
Euskararen astea	13
Santo Tomas eguna	14
Gogora	15

LEHIAKETAK

Literatur lehiaketa	16
Ohorezko matrikulak	16
Jubilazioak.....	18

ZARAOBETARRAK.....	19
--------------------	----

Zaraobe, gero eta hurbilago gero eta haratago (Txina) Zaraobe, the closer we get, the farther we reach (China)



Orain dela urte batzuk Txinatik ikasle batzuen bisita jaso genuen. Hor harremanak hasita pandemia arretik, Erasmus+ programa barruan beka bat eskatu genuen Txinara joateko eta bertako ikastetxeak bisitzeko asmoarekin. Pandemia behin igarota aukerari heltzeko momentua orain etorri zaigu eta bertan gure irakasle bat izan da Maiatzeko azken astean.

Esperientzia oso positiboa izan da. Shangaiko Guanghua School-en gonbitea aprobetxatuz 5 egunetan 5 ikastetxe bisitatu ditugu. Bigarren hezkuntzako bi ikastetxe. Shanghai Pingle School eta Guanghua bera. Lanbide Heziketako bi Unibertsitate, Shanghai Publishing and Printing College eta Shanghai Zhongqiao Vocational and Technical University. Bukatzeko, Goi mailako Unibertsitate bat, Sanda University.

Hezkuntza eredu oso ezberdin bat ezagutzeko eta aztertzeko aukera izan dugu, eta zergatik ez agian ikasleren bat bertara bidaltzeko aukera zabaldu ere....

A few years ago we were visited by students from a High School in China. Following a series of contacts prior to the global Covid pandemic we applied for a grant under the Erasmus+ programme to visit several Chinese schools. Once the pandemic was over, it was time for one of our teachers to go to China. This happened the last week of last May.

The experience has been very positive. We took advantage of the invitation from Guanghua School in Shanghai to visit five schools in five days. Two high schools. Shanghai Pingle School and Guanghua School itself. Two vocational colleges, Shanghai Publishing and Printing College and Shanghai Zhongqiao Vocational and Technical University. Finally, a Higher University, Sanda University.

We have had the possibility to get to know and study another type of educational model, far from our standards, so why not open the way for some of our students to go to China?

ZURGINTZAKO ONARRIZKO LHKO IKASLEEK HERRI EKIMENENKO ROKODROMOA SORTZEN LAGUN DUTE URDUÑAN

ALUMNOS DE FP BÁSICA DE MADERA CONSTRIBUYEN A LA CREACIÓN DE UN ROCÓDROMO



21/22 ikasturtearen amaieran, Urduñako Txarlazo Mendi Taldea elkarte Amurrioko **Zarobe institutuarekin** harremanetan jarri zen, herri ekimeneko proiektu batean parte hartzea proposatzeko. Proiektu horretan, **barne rokodromo** bat sortzen da, eskalada eta mendia maite dutenek espazio bat praktikatzen eta partekatu ahal izan dezaten. Rokodromoa Urduñako antzinako Lanbide Eskolen eraikinean egongo da, Urduñako Udalak utzitako gunean.

Zaraobe institutuak eskularrua hartu zuen, eta egur eta altzari sailetik erronka onartu zen. Ikasturte honetan, **zurgintzako oinarrizko LHko** lehen eta bigarren mailako ikasleek proiektu honetan parte hartu ahal izan dute. Horri esker, herri-ekimeneko proiektu komunitario batekin lagundu ahal izan dute, eta etorkizun hurbilean aplikatu ahal izango dituzten arrotzeriako teknikak ikasi ahal izan dituzte.

Eskerrik asko guztioi, zuen laguntzarekin gero eta gertuago dago guztiontzat irekita egongo den rokodromo honetaz gozatzeko aukera izatea!

A finales del curso 21/22 la asociación *Txarlazo Mendi Taldea* de Orduña se puso en contacto con el **instituto Zarobe** de Amurrio para proponerle la participación en un proyecto de iniciativa popular que consiste en la creación de un **rocódromo** interior para que los amantes de la escalada y del monte puedan practicar y compartir un espacio. El rocódromo estará situado en el edificio de las antiguas Escuelas Profesionales de Orduña, un espacio que ha sido cedido por el ayuntamiento de Orduña.

El instituto Zaraobe cogió el guante, y desde el departamento de madera y mueble se aceptó el reto. Durante este curso, los **alumnos de FP básica** de madera tanto de primer como de segundo curso han podido participar en este proyecto que les ha permitido contribuir con un proyecto comunitario de iniciativa popular y aprender técnicas de carpintería que podrán aplicar en un futuro próximo.

¡Muchas gracias a todos, con vuestra ayuda cada vez está más cerca que podamos disfrutar de este rocódromo que estará abierto a todos y todas!



HEDATZE 2022 - 2023

IES Zaraobe BHiko eskola-komunitateak HEDATZE proiektuko kide gisa egindako lehen urtearen balantzea egin du. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak sustatutako berrikuntza-proiektua da, DBHko ikasleentzat. Irakasleen Klaustroak, Ordezkaritza Organo Gorenak (OOG), familiek eta ikasleek onartu zuten proiektua, onarpen-maila handiarekin.

Los objetivos de Hedatze son: “mejorar la calidad educativa, poner en práctica y evaluar nuevos modelos de gestión de los tiempos escolares, contribuir a la equidad en los centros educativos, ofreciendo actividades que ayuden a avanzar hacia el éxito educativo de todo el alumnado, impulsando la adquisición de competencias, promoviendo la mejora de los resultados escolares y una convivencia positiva, así como fomentar el uso del euskera y la autonomía del alumnado”. Además, contar con el proyecto Hedatze no conlleva ningún coste adicional para las familias. Una Comisión de Seguimiento se reúne trimestralmente para comprobar el buen desarrollo del proyecto en nuestro centro.

Durante este curso, de octubre a mayo, nuestro alumnado ha tenido **sesiones de refuerzo curricular, y actividades de refuerzo cultural, social y emocional** dinamizadas por el equipo docente. El proyecto Hedatze ha reorganizado los tiempos escolares del centro con la intención de fomentar el éxito educativo de todo el alumnado. Las sesiones de refuerzo curricular (matemáticas, lengua, euskera...) se han impartido a lo largo del curso, mientras que talleres como **Sketch-Up+3D, mecanografía, ajedrez, circo, manualidades (casas de hadas), tenis, bicicleta, Land Art, karaoke, futbol y tricotaje** se han intercalado a lo largo del curso. Actividades que han gozado de una alta participación. Así mismo, el AMPA ha participado en el proyecto con la oferta de **sesiones de conversación “Speaking”** con un profesor de inglés nativo.

Proiektuaren lehen urte honetako datuei buruz egiten dugun balorazioa oso positiboa da. DBHn matrikulatutako 382 ikasleetatik 250 inguruk (%66) parte hartu dute eskainitako jardueretan.

Gure ustez, Hedatze proiektua gizarte-eskaera bati erantzuten laguntzen ari da, ikasleen bizi-garapena ahalbidetuz eskolaz kanpoko ordutegian. Hezkuntza-komunitateko kideen arteko bizikidetza positibo handiagoari esker, gure ahaleginak eskola-emaitzak hobetzerara bideratu dira, ebaluazioen emaitzetan egiaztatu den bezala.

Gaitasun-printzipioetan oinarritutako hezkuntza-eredu anitza, pertsonalizatua, orekatua eta inklusiboa lortzeko asmoz, eta proiektuan parte hartzen duen irakasle-talde baten ilusioarekin, Zaraobe BHIk, proiektua gure testuingurura egokituz, hezkuntza-kalitatea hobetu nahi du, ikasle guztien hezkuntza-arrakasta sustatzeko esparru egokia sortuz, autonomoagoak, kritikagoak eta askeagoak izan daitezten.



2023 ERASMUS+ FRANTZIAN

Erasmus+ programaren barruan, Zaraobe BHIko 13 ikasle eta bi irakasle Okzitaniara (Frantziako Estatua) joan dira martxoan. Abendutik aritu dira bertako ikasleekin truke-programa garatzen. Lanbide Heziketako beste 11 ikaslek ere atzerrian egin dituzte praktikaldiak.

Erasmus+ programak Europar Batasuneko ikasleek ikasketen parte bat beste estatu batean burutu dezaten ahalbidetzen du. Horren baitan, Zaraobe Institutuan frantses irakasgaia ikasi duten zenbait ikaslek Lézignaneko (Okzitania, Frantziako Estatua) institutu batekin (Lycée Ernest Ferroul) eskola-trukea egin dute ikasturtean zehar: bideoak grabatu, aurkezpenak prestatu, mezu elektronikoak bidali dizkiote elkarri... "Bidaia honen helburu nagusia ikasle frantsesekin batera Europan globalak eta interes orokorrekoak diren ikasgai batzuk lantzea da, hala nola inklusibitatea, ingurumena, demokrazia eta teknologia berriak".



Martxoaren 16tik 21era, ikastetxea eta inguruak ezagutzeko aukera izan dute Zaraobeko ikasleek. Zehazki, 13 ikasle eta bi irakasle joan dira Lézignan herrira, Languedoc-Rosellón eskualdean dagoena, eta Toulouse, Carcassonne eta Narbonne inguruetatik ere ibili dira. Proiektuaren izenburuak dion bezala, "Des voisins, si différents" (Auzokoak, hain desberdinak), gure ikasleek hango familietan bi herrialdeen arteko desberdintasunak zeintzuk diren ikusteko aukera izan dute, bertako ordutegi, ohitura eta espazioetara egokituz.



LH ERASMUS+

Urtero bezala, Lanbide Heziketako ikasleek ere praktikaldiak atzerrian egiteko aukera izan dute. Ikasturte honetan 11 izan dira Erasmus+ programaz baliatu direnak eta martxotik maiatzera bitarte, hiru hilabete eman dituzte atzerrian. Zehazki, erdi mailako zikloetan, 'Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta' zikloko lau ikasle Italiara eta Irlandara joan dira. 'Mantenu elektromekanikoa' ziklotik, bi ikaslek Italian egin dituzte praktikak. Goi mailako 'Gizarteratze' ziklotik, aldiz, bost ikaslek, Portugal eta Finlandia izan dute jomuga.



INDUSTRIA 4.0



IES Zaraobeko Lanbide Heziketako zikloetan pausoakematen ari gara **Industria 4.0**ra egokitzeko.

Zertan datza Industria 4.0? Produzitzeko era aldatzen ari da eta erabiltzen diren baliabideak interkonektibitatean, automatizazioan eta uneko datuetan oinarritzen da.

Zenbait enpresa bisitatu ditugu aldaketa hauek ondo ezagutzeko eta gure ekipamenduak eguneratzen ari gara helburu horrekin

Mekanizazio gelan **biltegi adimentsua** martxan jartzen ari gara erremintak eta tresnak hobeto kudeatzeko. Biltegi honek nahiko datu kudeatuko ditu, era honetan, erremintak ateratzen duen pertsona identifikatu beharko da, erreminta non erabiliko duen adieraziko du, erremintaren lan parametroak adieraziko ditu eta baita ere erreminta biltegiara noiz bueltatzen den. Erreminta zehatz baten kopurua jeisten denean (apurtu direlako adibidez), orduan biltegi honek erreminta saltzaileari abisua eman ahal dio automatikoki (email automatikoa).

Biltegi adimentsu hau Jatur Iraher enpresa martxan jartzen ari da eta mekanizatzeko erreminta berrien teknologien erakustaldia egin zigun ere. Oso eskertzekoa izan zen gure ikasleekin egoteko izan zuten prestutasuna eta esan behar da Mekanizazio zikloko bi taldeak gogoz izan zirela erakustaldi honetan



TXINTXARRIEN BARRUAN PROIEKTUA

“Txintxarren barruan proiektua: Saraube mahaiko eta inguruetakoko ondare kultural eta naturala”

Amurrioko institutu publikoari izena ematen dion Zaraobe terminoak Saraube Mahaia toponimoan du jatorria, Olabazar herrian, Erdi Arotik Aiaraldeko ordezkari sozial eta politikoen biltoki eta erabakigunean. Bere hesi almenadunak, Aiaratarren armarridun ateak, oroitarrizko hilarri batek, mahaia eta ahaldunek deliberatzen zituzten harrizko bi eserlekuk gure iraganeko garai batera eramaten gaituzte. Zaraobe institutuko ikasleentzat berreskuratu nahi dugu hori, bertan kongregatu eta eztabaidatu egiten baitzuten, irakaskuntzan oinarritzkoa dena.

2022-23 ikasturte honetan, Zaraobe BHIk Sararubeko mahaian eta inguruetan oinarritutako proiektu berria gauzatu du. Horren barnean, hainbat proiektu txiki egin dira, irakasgai ezberdinetan garatutakoak.

DBH1 mailari dagokionez, **Biologia eta Geologia irakasgaietan**, inguruko ekosistema nagusiak ezagutzeko ibilbidea egin dute ikasleek. Amurriotik Mendekara, Etxegoien auzotik igarota. Hainbat espezie autoktono identifikatu ahal izan dituzte, eta inguruko espezie autoktonoen landaketen inguruan hausnartu. **Corputz Hezkuntzan** dantzak prestatu dituzte eta kurtso bukaerako ekitaldian parte-hartu dute.



Musika irakasgaietan, DBH.1. mailako eta 2.mailako ikasleek hainbat abesti landu dituzte: Txintxarren barruan, Maixa eta Ixiarren iluntzean, axuri beltza... Ondoren, **Got Talent leihaketa** burutu da. Horretarako, ikasleak abesti horiek jotzen grabatu eta epaileek irabazleak aukeratu dituzte.



Horrez gain, **DBH2.mailan, Euskara eta Matematika** proiektuetan, ikasleek jarraibide testuak sortzen ikasi dute (Euskara eta literatuta) eta baita neurketak egiten ere (Matematika), tresna ezberdinak erabiliz. Horretarako, ikasleak **Zaraobe BHI**-tik Saraube Mahaira heltzeko ibilbidea egin zuten. Bertara nola heldu azaldu,



denbora apuntatu eta argazkiak atera zituzten. Jasotako informazioa Genially bidez egindako aurkezpen batean antolatu dute. Aurretik azaldu bezala, Saraubeko mahaian zeuden bitartean, hainbat neurketa burutu zituzten (harresiaren perimetroa, diagonalak...). Datu guzti horiek klasean aztertu eta Genially-an ondorioak txertatu dituzte, eta baita harresi eta mahaia 3D planoak sortu ere, Sketchup programarekin.

Asmakuntza irakasgaietan, Saraube Mahaiko labirinto hidraulikoak egin dituzte. 10 ml-ko xiringak erabilita, likidoaren presioa aldatzen da, labirintoaren oinarria mugitu eta pilota dagokion tokira heltzea eragiten dute.

DBH4.mailako Ekintzaitza eta Teknologiako ikasleak eta 1.batzilergoko Teknologiako ikasleak Arespalditzan dagoen Soloitzako gaztandegia bisitatzera joan ziren. Bertan ikusi eta ikasitakoan oinarrituz, Ekintzaitzako ikasleek enpresa berri bat sortzeko proiektua eraman zuten aurrera. Hainbat hizkuntzetara itzuli ziren haiek sortutako triptikoak.

Biologia eta Geologian, DBH4n, Babio eta Burubio mendiak jasotzen dituen erliebearen maketa egin dute, inguruko sestrakurben mapan oinarrituz.



AGENDA 2030 ESKOLA BARATZEA MARTXAN DA!

Aurten, ZARAOBEko **Lanbide Heziketa (LH) ESKOLA AGENDA 2030**ean sartu berri da, ingurumena hobetzeko ekarpenak eginez. Programaren barruan gauzatuko den ekintzetako bat baratzea sortzea izango da, bere kokalekua institutuko LHko atzeko sarreran egongo dena.



Zurgintzako Oinarrizko Lanbide Heziketako bigarren mailako ikasleek dagoeneko jarrita dauden bankalak eta zursareak egin dituzte, eta datorren ikasturtean konpostontzi batekin jarraitzeko asmoa dute. Hau horrela, 2023ko irailean, lehenengo ereintzarekin hastea espero dugu! **DBHko osagarriko ikasleak izango dira honen kudeaketaz arduratuko direnak**, metodo jasangarri eta ekologiko batean oinarrituko dena.

Ekintza honi esker, ikasleek, curriculumari dagozkion gaitasun teknikoak garatzeaz gain, hurbileko produktuak eta produktu ekologikoak kontsumitzearen garrantziaz kontzientzia hartuko dute.

2030 ESKOLA AGENDAK WEBGUNE BERRIA DAUKA



DBH 1Gko ikasleek "Proiektu komunitario"-ko ikasgaiari, Eskola Agenda 2030eko programa zertan datzan hezkuntza-komunitate osoari jakinarazteko SITES bat diseinatu dute. Horretarako, ikasleek garapen jasangarrirako 17 +1 helburuen (GJHak) aurkezpena azalpen-bideoen laguntzaz egin dute. **SITES honetarako sarbidea institutuko webgunetik egin ahal izango da, Agenda 2030eko proiektuaren barruan institutuan egingo diren jardueren jarraipena egiteko aukera emango duelarik.**

LENDOÑOBEITIKO ERROTA ZAHAR MAITEA

Lendoñobeitiko Errota uraren ertzean uraren ertzean da basati beltzean.

Zaraobetik irten ginen Etxegoienetik gora baso ederrenetan guztiz txundituak.

Zotin segua dabil errotariak artoirina egiteko gogoaz.

Antzineko kontuez hunkituak, begiak zabal zabalik, errota martxan ikustez.

Bueltan etorri ginen taloak egiteko asmoaz. Denok batera sutean zein gozo gozoak.

ZARAOBENAGUSIn jan genituen, iragana eta geroa batuaz.

Beste batzuen artean, Luis eta Eli zure zaindariak. Animo kuadrilla gora zuek ta zutarrak.

Lendoñobeitiko Errota uraren ertzean uraren ertzean da basati beltzean.

Zaraobetik irten ginen Etxegoienetik gora gizarteratze ziklokoak guztiz txundituak.



EUREKA!!! ZIENTZA MUSEORA BATXELLERGOKO 1. MAILAKO IKASLEAK DONOSTIAN IZAN DIRA ZIENTZIAREN MUSEOAN

Fisika-kimikako departamentuak irteera bat antolatu zuen apirilaren 24an Eureka! Zientzia Museoara. Hemen uzten dizkizuegu gure ikasleen iritzi batzuk:

“Zientzia museora joatea sekulakoa izan zen. Oso giro ona zegoen klasekideen artean. Praktika, erakusketa eta elektrizitateari buruz emandako hitzaldia oso interesgarriak izan ziren. Museoa oso interaktiboa da eta hori izugarri gustatu zitzaigun, bereziki gaitasun fisikoen eta elektrizitatearen atala. Ikusita neukan museoa, baina berriz bisitatzea asko gustatu zitzaidan.”



“Museoara sartu ginenetik eta hor zeuden gelak ikustean gustatu zitzaigun. Bestalde, bi praktika egin genituen. Biek izan zituzten beren teoria-eta praktika-atala, eta hori oso ondo egon zen, elektrizitatea zure gorputzetik nola pasatzen zen edo substantzia batzuek nola erreakzionatzen zuten ikusita ere ikasi genuen. Eta hori, klasean ikasi nahi baduzu ere, oso zaila da. Horregatik gustatu zait asko txango hau.”

“Nire iritzi oso entretenigarria izan zen Donostiako Eureka! Zientzia Museo bisitatzea. Egin genituen bi praktiketan oso gustura egon nintzen, gainera guztiak parte hartu genuen, eta horrek adi egotera bultzatu gintuen zer gertatuko ote zen jakiteko. Praktika gehiago egiteko gogoekin geratu nintzen, eta bueltatuko nintzateke beste hainbat gauza ezagutzeko.”

“Museoa oso interesgarria izan zen; bertan egin genituen bi praktikak zein museoa bisitatzeko izan genuen denbora librea. Lehenengo elektrizitateari buruzko tailerra izan genuen eta, ondoren, denbora librea izan eta gero, kimikako praktika batzuk egin genituen. Bietan guztiok ikasi egin genuen eta oso gustura ibili ginen, guztiok parte hartu baikeun.”



2022KO BABIO NON STOP IGOERA ZARAOBE ERE EGON ZEN



BABIO NON STOP 2022rako igoera solidarioa, Amurrio trail taldeak antolatua, abenduaren 23an eta 24an egin zen. Oraingo honetan, Amurrioko AMAURRE, ARESKETA eta ZARAOBE ikastetxeetako DBHko 3. mailako ikasleek elkarrekin egin zuten lehen aldiz gailurra, belaunaldi berriei elkartasun espiritu hori emateko asmoz.

Gure ikasleek ere, Proiektu Komunitario-ko ikasgaiaren barruan, arretaz entzun zituzten EZINA EKINEZ EGINA eta MONTES SOLIDARIOS elkartasun-erakundeetako ordezkarien azalpenak. Ekintza zoragarria. Eskerrik asko Amurrio Trail taldea zuen konbidapenagatik. Zarabek esperientzia errepikatuko du zalantzarik gabe.



MIREN GORROTXATEGI IDAZLEAREN BISITA



Otsailaren 4an, Batxilergoko 1. mailako ikasleek Miren Gorrotxategi idazle azpeitiarraren bisita izan zuten, Euskal Idazleen Elkarteak sustaturiko Idazleak Ikastetxeetan programaren baitan. Izan ere, ikasleek idazle honen 33 ezkil eleberri beltza irakurri berri eta gelan landuta zeukaten, eta horretaz gain, liburuan oinarritutako Hil kanpaiak filma ere ikusi zuten gero. Horregatik, saiora zenbait galdera prestatuta ere joan zitzaizkion ikasleak, eta eleberri beltzaren nondik norakoak miatu ahal izan zituzten egilearen beraren eskutik, bere ibilbidea eta bere beste lan eta esperientziak ere ezagutzeko aukera izan zutelarik. Eta hitzaldiaren amaieran, liburuak sinatu zituen.

Dudarik gabe, horrelako esperientziak bizitzea benetan aberasgarria da irakurzaletasuna sustatzeko.

Eskerrik asko, Miren, zure bisitagatik!

EUSKARAREN ASTEA



Urtero bezala, ikasturte honetan ere Euskararen Astea ospatu dugu DBHko ikasle guztiekin eta LHko lehenengo mailakoekin, euskararen erabilera sustatu nahian.

Apirilaren 21etik 27ra izan da eta horretarako ekintza desberdinak antolatu ditu HNPK eta ikasleak gogotsu ibili dira.

DBH1eko ikasleekin mendi irteera egin zen eta horren ostean "6000 metroan ere" dokumentala ikusi zuten. DBH2koek, aldiz, Ginkana egin zuten. Bestalde, DBH3koek

Bertso Bizi Gazte tailerra egin ondoren, Amurrio Antzokian ekitaldia izan zuten eta Euskararen Astean ihes gelan parte hartu zuten LHko lehen mailako ikasleek bezala, eta DBH4n La Basurekin Rapari ekin zioten. Gainera, aste osoan zehar euskal musika izan genuen entzungai atsedendaldietan.

Hurrengo ikasturtean ere horrelako ekintzak antolatuko dira, Euskara altxor dugulako eta ezin dugulako galdu!

SAN TOMAS EGUNA

2Aurreko urteetan Covid-a zela eta San Tomas eguna ezin izan dugu betiko moduan ospatu, baina aurten, zorionez, berriro egin ahal izan dugu, gogotsu eta parte-hartze handiarekin. Ikasturte honetan abenduaren 23an ospatu izan da, azken klase eguna zela aprobetxatuz, eta dudarik gabe arrakasta handia izan du.

Ekintza desberdinak izan genituen goiz osoan zehar: talde-argazkiak lehenengo orduetan eta klasez klase, gero herri-kirolak, xake-, futbito- eta hiruko-txapelketak ere bai, eta horretaz gain, goiz osoan zehar euskal dantzak, bokatak eta musika.

Eguna ederto pasatu genuen eta amaitu zen sari-banaketa eta otarren zozketa eginez.




ORDUÑAKO KOLUNBARIOA COLUMBARIO DE ORDUÑA



Columbario, usategia esan nahi duen latinezko columbariumetik. Eta usategiekiko duen antzekotasunetik dator kolunbario hitza. Hilobi kolektibo bat da, zine-ontziak gordetzen dituen nitxo ugari dituena. Urduñako hilerriaren ondoan Duintasunaren Kolunbarioa dago, faxismoaren aurkako borrokan gerra zibilean eta gerraostean bizia galdu zutenak omentzeko gunea. Gaur egun, 1941ean Urduñako Espetxe Zentralean hildako 14 presoren gorpuzkiak jasotzen ditu. Preso horien gorpuzkiak 2014an aurkitu ziren udal hilerrian, banakako hobietan. 1937an, gerra zibila hasi zenean, Urduñako jesuiten ikastetxea kontzentrazio-esparru gisa erabili zen, eta bi urte geroago, 1939an, Espetxe Zentral bihurtu zen. Han, hamarnaka pertsona gaizki bizi eta hil ziren, gehienak gosez, Espainian ezarritako erregimen frankistaren aurkako matxinada bezalako delituengatik. Ez ziren gudu-zelaitik zetozen presoak, beste espetxe edo kontzentrazio-esparru batzuetatik zetozenak baizik. Giltzapetutako gehienak Badajozkoak ziren. Kontua zen deslokalizatzea, familiengandik urruntzea eta zigorra zigor bihurtzea, deserrotzearen ondorioz. Tartean, Bernardo Rodríguez, Castuerako kontzentrazio-esparrutik lekualdatua.

New Digital Media Euskadi ekoiztetxeak, Gogora, memoriaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen Institutuaren babespean,

Columbario, del latín columbarium que significa palomar. Y de su semejanza con los palomares proviene el término columbario. Es un sepulcro colectivo con multitud de nichos donde se guardan las urnas cinerarias. Al lado del cementerio de Orduña existe un Columbario de la Dignidad, un espacio de reconocimiento y homenaje a quienes perdieron la vida en la guerra civil y en la posguerra en su lucha contra el fascismo. Hoy en día recoge los restos mortales de 14 presos fallecidos en la Prisión Central de Orduña en 1941, cuyos restos se hallaron en 2014 en fosas individuales en el cementerio municipal. En 1937, comenzada la guerra civil el colegio de los jesuitas en Orduña fue utilizado como campo de concentración, para pasar a convertirse, dos años más tarde, en 1939, en Prisión Central, donde mal vivieron y murieron, la mayoría de hambre, decenas de personas condenadas a penas de reclusión por delitos como el de rebelión contra el régimen franquista establecido en España. No eran presos que venían del campo de batalla sino de otras prisiones o campos de concentración. La mayor parte de los reclusos en Orduña eran naturales de Badajoz. Se trataba de deslocalizarse, alejarles de sus familias y que su condena se convirtiese en una pena agravada por el desarraigo. Entre ellos se encontraba, Bernardo Rodríguez que había sido trasladado desde el campo de concentración de Castuera.



dokumental bat egin du izenburu honekin: “De Orduña a Casuera Exhumando la verdad”. Maite Ibañezek zuzendutako dokumentalaren filmazioak Urduñako kaleak aldatu zituen apirilaren 26an, cámaras, luces, acción... Bernardoren birbilobak, Naiara Garmendiak, birraitonak Badajozen zuen lurraldetik Urduñako presondegira egin zuen bidean barrena eraman gintuen. Bere sentimendua kontatu zuen, bere familiarena, deserrotzearen tristura, bizi-baldintzen gogortasuna, gosea eta penak. Horretarako, Urduñako sei gaztek, Amurrioko Zaraobe Institutuko ikasleek, Uxuek, Sarak, Aitzolek, Urkok, Ederrek eta Olatzek parte hartu zuten bere istorian. Urduñako kolonbarioa aurkitu zuten, hilerriaren ondoan. Han, birraitonaren bizipenak azaldu zituen, bere ibilian parte hartzen zuten ikasleen jakin-mina, ikusmina eta harridura, kasu batzuetan, bere galderekin, bere zalantzekin eta gerraosteko gertakari ezezagun bati buruz ikasteko interesarekin.

Ordu batzuk geroago, gaua hurbiltzen joan zen, eta argirik gabe, dokumentalaren grabazioa amaitu egin zen. Orain, dokumentala ekoizpen fasean dago, datorren udazkenean ETB1en eta ETB2n emititu ahal izateko.

La productora New Digital Media Euskadi, bajo el auspicio de Gogora, Instituto de la memoria, la convivencia y los derechos humanos ha realizado un documental con el siguiente título: “De Orduña a Castuera Exhumando la Verdad”. La filmación del documental, dirigido por Maite Ibañez, alteró las calles de Orduña el pasado 26 de abril, cámaras, luces, acción... La bisnieta de Bernardo, Naiara Garmendia nos condujo a través del camino que recorrió su bisabuelo desde su tierra en Badajoz hasta la prisión de Orduña donde falleció. Narró su sentir, el de su familia, la tristeza del desarraigo, la dureza de las condiciones de vida, el hambre y las penas. Para ello, contó con la participación de seis jóvenes de Orduña, estudiantes del Instituto Zaraobe de Amurrio, Uxue, Sara, Aitzol, Urko, Eder y Olatz, a los que explicó lo que su ausencia de su bisabuelo significó para su familia. El lugar donde se encontraron fue el Columbario de Orduña, al lado del cementerio. Allí desgranó las vivencias de su bisabuelo, ante la curiosidad, la expectación y el asombro, en algunos casos, de los alumnos que participaban de su caminar, con sus preguntas, sus dudas y su interés por aprender sobre un episodio, como tantos otros, desconocido de la postguerra.

Unas horas más tarde, la noche se fue acercando, y con la ausencia de la luz, la grabación del documental llegó a su fin. Ahora mismo, el documental está en fase de producción para poder ser emitido el próximo otoño tanto en ETB1 como en ETB2.

LITERATUR LEHIAKETA 22-23

Aurten Literatur Leihaketaren XXVII.edizioa ospatu dugu Zaraobe Institutuan. Oso pozik gaude jaso ditugun idazki guztiengatik, Amurrion literatur eta sormen maila oso altua dugula erakutsi baitute.

Era berean, harro gaude sari banaketagatik, gure batxilergoko ikasleek gidatutako ekitaldi arrakastatsua izan baitzen. Aurkezle eta musikari gisa, apirilaren 27an Areto Nagusian egindako emanaldia dinamizatu eta girotu zuten.

Hona hemen saritutako idazleak, guztira jaso genituen 44 idazkien artean aipamen bereziak izan zituztenak.



EUSKARA:

Poesia (1.zikloa)

ISRA ANACIRI SALLAQ - 1.saria

GAZTELANIA:

Narrazioa (1.zikloa)

GAROA AYERDI ORDOÑEZ - 1. saria
IKER GALNARES MARTÍNEZ - 1. saria
NAHIKARI PENA UZAL - accesita

Poesia (1.zikloa)

ASIER ALBISUA GONZALEZ - 1. saria
URKO OURO LANDA- accesita

Narrazioa (2. zikloa)

IRENE ALBISUA GONZALEZ - 1. saria
AIA FERNÁNDEZ GARMILLA- accesita

Poesia (2.zikloa)

IRENE ALBISUA GONZALEZ - accesita
IRAIDE GARCIA BLANCO - accesita

Narrazioa (batxilergoa)

BIDATZ GONZÁLEZ PENA -1. saria
JAYDY GÓMEZ ANTON - accesita
OIER MENDIVIL MARTINEZ - accesita
MOHA SIDNA ABDELHAY - accesita

INGELERA:

Narrazioa (2.zikloa)

EDER IRIONDO PEREIRO -1. saria
UXUE NOGRARO ARRAZURIA -1. saria

OHOREZKO MATRIKULAK



2022-2023 ikasturtean ohorezko matrikula lortu duten ikasleak:

DIEGO SUAREZ RUIZ,
OLAIA CARRASCO MORILLO,
HAIZEA SOLAUN RIVACOBIA eta
LEIRE NIEVES LARREATEGI
Zorionak!

JUBILAZIOAK 2022-2023

ANA, ROSA ETA CARLOS



Inbidia eta penaren arteko sentimendu batekin gure lankide maite batzuk agurtu ditugu aurten ere. Bai, badakigu beste batzuk etorri direla haien orde, energiaz beterik gainera, baina egunero ikusi ditugun lankide hauek, urteetan zehar gure institutu eta gure ikasleen alde lan egin dutenak, euren irribarrearekin gure bizitza alaitu dutenak, horien falta nola ez nabaritu.

Rosa Garciak hogeitau urte baino gehiagoko ibilbidea eman du Zaraoben. Biologia irakaslea, bere irakasle lana administrariarenarekin batera egin du, hamazortzi urteetan zehar. Irakasle bezala, sekulako konplizitatea lortu du beti ikasleekin. Administrari bezala, une larri batean hartu zuen kargua, institutuen kontuetan zulo handia zegoen urte batean, eta

harrez geroztik ez da inoiz arazo ekonomikorik egon zentroan. Administrazio ekonomikoak pertsona fidagarriak behar ditu, eta hori izan da Rosa, guztion konfiantza lortu duen pertsona bat.

Ana Lazkozek beste ikastetxe batzuetan egin du lan, baina, gure onurarako, Zaraobe aukeratu zuen azken hamabi urteetan lan egiteko. Historia izan da bere pasioa, eta pasio hori ikasleei transmititu die. Etorri zenetik berak hartu du ardura bigarren batxilerreko historia emateko; ez da erantzukizun makala, ikasgai honek selektibitatean duen garrantziagatik. Anaren prestaketari esker, gure ikasleak lasaitasunez aurre egin diote probari, bai eta emaitza dotoreak lortu ere.



Eta zer esan Carlos López buruz. Lengua eta literatura irakaslea, lasaitasuna transmititzen duen pertsona horietako bat da. Horregatik agian, edo bere hurbiltasunagatik, bere ikasleek asko maitatu dute, eta bere jakituriagatik mirestu. Irakasleontzako ere plazerra izan da berarengana hurbiltzea, aholku eske edo, besterik gabe, bere solas aberatsa entzutearren. Izan ere, Carlosek daukan poetaren arima horrek gazteen horizontea zabaltzen lagundu du, eta hain gazte ez garenon egunerokotasuna gozotu.

Horregatik, Carlos, Ana, Rosa, badakizue, Zaraoberen esker ona betirako baduzue, eta nahi duzuenean etorri bisitan, eta, batez ere, izan zoriontsu, merezi duzue eta. Beti arte.

IKER LARRAZABAL



Kaixo Iker, Zaraobeko batxilergoko ikasle talde bat gara. Aurtengo zaraobe aldizkarian idazten ari gara eta zuri elkarrizketa bat egitea gustatuko litzaiguke.

Nola hasi zinen eskupilotan?

Nire aitite eta nire aita jolastu zuten eskupilotan, nik txikitatik hasi nintzen jolasten hemen Amurrion eta oraindik zegitzen dut jolasten.

Zein izan da zure partida gogokoena?

Orain nago jolasten partidu batzuk lehenengo mailan, nire ustez horiek direla honenak orain dela gutxi jolastu dut Altunaren kontra pilotari oso ona da eta partidu horrekin geratuko nintzen.

Zer iruditu zitzaizun Zaraobeko irakaskuntza?

Nik oso ondo pasatu nuen hor, nire ustez berriro ikasiko nuke han.

Zaraobetik aterata jarraitu duzu ikasten? Zer ikasi duzu?

Zaraobetik aterata egin nuen mekanizado goi-maila bat Laudion.

Gorri edo urdin?

Gorria dut nahiago.

Txikia zinenean zer izan nahi zenuen?

Kirol egiten dugun pertsona guztiok nahi dugu arrakastatsuak izan, orain pilotan eroso nago eta espero dut hemen jarraitzea.

Zauden lekura iristea espero zenuen?

Ez, hau amets bat zen eta suerte izan dudanez errealitatea egin da.

Nola izan da honaino iristeko bidea?

Kirol guztietan egiten da berdin entrenatu asko, Amurrion asko entrenatu dut eta orain Baikon nago oso gustura.

JULENE GARCÍA

Kaixo Julene, Zaraobeko batxilergoko ikasle talde bat gara. Aurtengo zaraobeko aldizkarirako artikulu bat prestatzen ari gara eta zuri elkarrizketa bat egitea gustatuko litzaiguke.

Nola hasi zinen taekwondo egiten?

Txikitatik nire gurasoak apuntatu zidaten taekwondora eta nahiz eta hasieran gustura ez egon azkenik ohituratu nintzen.

Nolako izan zen zure esperientzia konpetidore moduan? Zein izan da zure txapelketerik gogokoena?

Oso ona, zaila zen dietak eta entrenamendu asko egin behar nituelako baina horri ezker azkenean txapelketetan ondo joaten zitzaidan.

Nola izan zen gerriko beltza lortzea? Zenbat iraun zuen? Zer nolako gauzak egin behar zenituen?

Zaila eta azterketa prestatzea denbora asko eraman zuen, baina lortu nuenean oso gustura geratu nintzen.

Zergatik aldatu zenuen taekwondo kick boxinagatik?

Taekwondoa azkenik ez zen niri gehien gustatzen zitzaidana, gustatzen zitzaidan kontaktuko deporteak eta azkenean frogatzean kick boxina aurkitu nuen eta horrekin geratu nintzen.

Frogatu duzu beste kirolen bat?

Bai adibidez; boxeoa, eskalada eta menditik ibiltzea gustoko dut.

Nolakoak izan ziren zure urteak Zaraoben? Ondo eraman zenuen ikasketak kirolarekin?

Zaraoben oso esperientzia ona izan nuen ikasleekin eta irakasleekin, batzuetan etxeko lan edo azterketa asko nituen eta zaila zen dena egin ahal izatea egunean zehar.

Jajaja! etxeko lanak bidaltzen jarraitzen dire, Julene. Beno, ba mila esker zure denboragatik eta zorte on zure kirol-ibilbidean eta bizitzan.



2022-2023 PROMOZIOA



2 BATX E



2 BATX F



2 BATX N

Zorionak guztioi!

Aurten ere, % 100ek gairitu du USE-ren ohiko deialdian (Selektibitatean) Zaraobe institutuaren izenean zorte handia opa dizuegu zuen ibilbideetan.